# URUNDIK IKUSTEN DUT






Uŕundik Ikusten dut, ikusten mendia,
Beraren gibelean baitut nik eŕia;
Jadanik dut aditzen, zorion andia!
Ezkila maitearen asperen eztia.

Lanako langilea, artzain mendikoa,
Ituŕiko bidean doan neskatoa,
Aditurik ezkila, ire boz lañoa,
Otoizten asi dituk Ama zerukoa.

Nik ere dut otoizten Birjiña Maria,
Baseŕietan galdu auŕen gidaria;
Neretzat otoi dezan ardiets grazia
Bakean kausitzeko nik egun Eŕia.

Aguŕ, aguŕ, eŕia! aguŕ, sor lekua!
Aguŕ, nere auŕeko leku maitatua!
Jainkoak aditurik aur bat oiua,
Iregana duk aur bat egun urbildua.

Baratze gibeleko eloŕi txuria,
Beti duk begiratzen auŕeko tokia,
Ik bezala zertako, aldaska gerbia,
Ez diat sor-lekuan igatzen bizia?

Ezkila, zer ote duk Ik egun eŕaten?
Uŕunera zer beŕi ote duk igortzen?
Mendiek edoipetik dautek iardesten,
Ik eŕana zerura ditek elarazten.

Mendiaren egitik artuz zeiaŕera,
Iduri txingola bat, aldapa beera,
Bidexka i txuxen aiz jausten zelaiera,
Txuxen eraman nazak aaiden artera.

Mendiak utzi ditut uŕun gibelean,
Eŕia duk ikusten jadanik aldean.
Zer duk, ene biotza, saltoka barnean?
Ote duk utz eginen eŕira eltzean?

Bide egiko aitza, zenbatez auŕean,
Igandetan mesatik etxera sartzean,
Zenbatez ez nauk jaŕi, amaren aldean,
Ire adar lodiek egin itzalean.

Bainan nere begitik nigar bat da jausten
Bozkarioak darot biotza gainditzen;
Etxekoen boza dut jadanik aditzen.
Jainkoa, darozkizut eskeŕak biurtzen!